

⇒ Hizpide ⇒

Haur-literatura: gutxiengo bat literaturaren barruan

Teresa Colomer

INAKI MENDIGURENEK itzulita



Biltzarraren antolatzaileek izenburu hori proposatu zidatenean, aitortu behar dut duda egin nuela egokia ote zen. Iruditzen zitzaidan haur-literatura gutxiengo borrokalari gisa ikustea iraganeko kontua gehiago zela konkistatuz joan garen orainaldikoa baino. Hala ere, ikuspegi moderno interesgarri batera dei egiten zigun biltzarrak: azterketa-arlo soziokultural bat gutxiengo eta gehiengoen arlo eta joeren arteko tentsioen bidegurutze gisa ulertzea. Sare horretan benetan beharrezkoa zirudien haur-literaturari bere tarte ematea bere horretan, literatura gisa, harturik. Beraz, gogoeta egiten hasi nintzen neska-mutikoentzako benetako literaturazko esperientzia-gune batek (irudiko Alizia horrengan irudikatuak) bere eratze-bidean era askotako indar maioritarioei planteatu dizkien erronkei buruz. Zortzi eztabaidagai nagusi identifikatu nituen. Eta neure bizitza profesionalean guztiak ezagutu nituela egiaztatzea izan lehenik harritu ninduen. Beraz, hasierako sentipenaren kontra «iraganeko» kontua zela ondorioztatu nuen kalitatezko



haur-literaturak zortzi eztabaidagai horiekiko dituen tentsio edo tirabirak ezin direla gainditutzat eman kasurik gehienetan, eta beste batzuetan, berriz, hasi besterik ez direla egin tirabira horiek.

1. Ahozko tradiziozko literaturari buruz: adiskidetasun baten historia


Guztiok dakigun bezala, haurrentzako literaturaren jaiotzaren indarrak bikiak sortu zituen: folkloreaken zati bat publiko horrentzat berezi edo espezifikoki bihurtu zen. Beranduxeago, idazle bakan batzuek zenbait haurrentzat idatzi zuten hauek entretenitzeko helburuaz. Horretarako, idazleek helduen arau eta munduarekiko hauste-jarrera bat hartu zuten. Alison Lurie-k izenburu adierazkor bat eman digu haurrentzako klasikoaren indar subertsibo horretarako: *Don't Tell the Grown-Ups* (gazt. *No se lo cuentes a los mayores*, 1989). Norberaren ingurunearen aurrean urruntzeko konplizitatea sortu zen, arnasaldi bat fikzio eta jolaserako. Eta non zeuden, bada, ordura arte haur-fikzioa eta -jolasa folkloreak ez bazen? Liburu didaktiko hutsalen aurrean gune berri bat irekitzeko, idazleek ezinbestean horren senidearengana jo zuten, ahozko tradiziozko literaturara.

Bi literatura mota horiek beren literatura-funtsari eutsi zioten. Gaizki-leak bezala, legez kanpo eta Graciela Montes-ek (2001) salatutako haur-literaturaren eskortatik kanpo kokatu ziren. Beraz, literatura-itun honek bultzatzea egin behar izan zuen jaiotzeko, eta gainera susmopean egotearen tentsioa jasan izan du denboran joan-etorrian dabilen uhinaldian. Azkenik, joan zen mendeko hirurogeita hamarrekotik hamarkadan, folkloreaken deskribapen estrukturalistak eta bere garrantziaz antropologiaren eta psikoanalisiaren ikuspegitik egindako interpretazioak bazirudien behin betiko onartu zutela bai folkloreaken fantasia sinbolikoa eta bai haur-literatura modernoan haurrentzako gai ezkuturik ez dagoela.

Hala ere, galdera zehatzagoetan mantendu egin da beso-borroka: zenbaterainoko indarkeria eta ankerkeria onar daiteke haur-ipuinetan? Zer kultura-estereotipo saihestu edo berritu beharko lirateke? Posible edo komeni al da irakurleak heroiaaren arrakastan duen konfiantza trizionatzea? Eta istorioen amaiera edo askaeran itxaropena ez mantentzea? Galdera horiek egoki eta arretaz aztertzen dituzte haurrei zuzendutako gizarte-diskurtsoaren mugak. Baina batzuetan helduen begiradatik corpus honetara lehenengo aldiz hurbiltzen denaren nahasmenduaren ondorio ere izaten dira. Hori irakasleen prestakuntzako gelak ezagutzen dituen edonork daki (ikasleak izututa folklorearen xehetasun ankerren aurrean edo egungo liburuetao gizarte-gai gogorren aurrean) edo baita hedabideetan aldian behin sortzen diren polemikak jarraitzen dituen edonork ere. Adibidez, Espainiako Emakumearen Institutuak zoritxarreko edo gaizki interpretaturiko adierazpen batzuk egin ondoren, era guztietako instantziatako erreportaje edo txosten akademikoen hamar egilek gutxienez galdetu didate estu eta larri ipuin herrikoien sexismoaz.

Nahiz eta alde berean jokatu duten, bi literatura-mota horiek harreman konplexuak ezartzen dituzte beren artean. Azken hamarkadotan aurrerapenak egin dira horiek zehazteko zereginean, bi corpus osagarri horiei buruz ditugun ideiak aldatzen dituzten erradiografiak. Lehenik, folklore-azterlanek kontzientzia harrarazi digute migraturiko ekoizpenak gutxiengo txiki-txiki bat izan zirela, eta gainera beheranzko joeran daudela egungo haur-irakurleen artean; baita ere, igarotze horretan jada jasandako aldaketa-mota desberdinen berri ere eman digute. Bigarren, baztertu egin da heziketa-suposizio bat, hau da, folklorea dela txikien lehenengo literatura-etapa, zeren eta, lehenengo unetik, ahozko literatura fikzioaren beste garraiatzaile batzuekin, irakurle ez direnientzako liburuekin edo ikus-entzunezkoekin, batera existitzen baita; ikuspegi-aldaketa garrantzitsua irakurleen heziketan jarduteko. Hirugarren, ohartu gara haur-liburuen egungo produkzioa zenbateraino urrundu den funtsean folklorearen ezaugarrietatik. Baina paradoxikoki horrek ez du eragozten ipuin herrikoia izatea idazketak oso bereak dituen forma artistikoen (berariazko testuartekotasunaren eta klasikoak berrinterpretatzeko borondatearen) izar gonbidatua.

Benetako haur-literatura osatzeko baterako borroka honetan duela gutxi arrisku berriak agertu dira, eta horietako hiru aipatuko ditut: Lehenengoa, folklorea galtzea gizarte postindustrialen. Folkloreak aspaldi babestu behar izan zuen eskoletan transmisioa ziurtatzeko, baina gordeleku horrek ere mehatxupearan dirudi irakasle-belaunaldi berriekin, ez baitute literatura-esperientzia hori berenganatu, ezta jaso ere irakasle-prestakuntza urrian. Bigarrena da ikus-entzunezkoen bertsioek ezinbestean ezarri dizkietela beren ezaugarriak istorio zaharrei eta horrek, kasu



1. Igandetako eskola: Herrialde protestanteetan igandean kristau helduak beren kultu edo elizkizunean dauden bitartean, haurrak aparte aritzen dira beste gela batean, batez ere Bibliako istorioak lantzen, beraien arabera arakatuak diren jarduerak eginez, irakasle edo begirale baten zaintzapean (*Itzul.oharra*).

askotan, antzutu egin du tradizioaren literatura-ahalmena. Hirugarrena, ahozko literatura tradizionalaren banalizatze edo hutsaltzea dago bertsio moderno askotan, helbururik gabe imaginario kolektiboarekin jolasten baitira, eta gaingiroki birformulatzen dute hori, bere interpretazio-oihartzuna zabaldu gabe.

Beraz, arlo honetan ondorioa da borrokatu beharra dagoela hain emankorra den itunaren indarrari eusteko.

2. Pedagogiari buruz: burujabetasunaren aldeko borroka nahasia

Haur-literatura «*igandetako eskolaren*¹ ezaugarri guztiak dituzten» liburu horiei aurre eginez sortu zen, Mark Twain-en *Huckleberry Finn-en abenturak* liburuko protagonistak bota zuen bezala. «Amaorde pedagogikoarekiko» burujabetasuna irabaztea lanbide-proiektu eta ia etiko bihurtu zen idazle, bitartekari eta kritikarietako batzuentzat. «Literatura pedagogiaren aurka»: horrek eman zien izateko arrazoia elkarren aurka zeuden bi talderi, eta beste hainbat hezkuntza-eztabaidatan bezala, argudioak estrapolatu zituzten ziur eta eroso sentitu arte. Batzuk beren iritzietan, eta besteak beren praktikan.

Haurrentzako liburuak nahitaezko eskolatzeari loturik agertu zirenez, eskola bihurtu zen gudu-zelai nagusi irakurketa askearen eta eskola-irakurketaren bandera kontrajarrien artean. Anne Marie Chartier eta Jean Hébrard-ek (1994) deskribatu zuten guretzat nola sortu ziren diskurtso horiek XX. mendean mendebaldeko gizarteetan. Eta beste autore askok, Bruno Bettelheim-ek eta Karen Zelan-ek (1981) adibidez, zenbait liburuaren artifizialtasuna eta eraginkortasun urria azaldu eta salatu zituzten: irakurtzen ikasteko liburuaren, maila eta adinen arabera sailkatutako liburuaren, eskola-curriculumaren edo defendituriko ideologiaren (nahiz eta antiautoritarioa izan) arabera aldez aurretik edukiz beteriko liburuena; azken batean, literatura-esperientziari arrotz zaizkion liburuena. Zehar-balioak dituzten liburuak edo zuzentasun-politikaren eragina izan dira agindupean idatzitako liburuaren historia honetako azken kapituluak.

Eta, hala ere, errealtatea beti izaten da konplexuagoa salaketa-diskurtso autoatsegingarriak baino. Lehenik, literatura-eremua ez delako bitan banatzen. Eta eginkizun morala ez da haur-liburuetara mugatzen. Herri-literaturaren helburuetako bat izan da beti, izan santu-bizitzak, XIX. mendeko foilletoiak, telesaioak edo kontsumo handiko egungo fikzioa. Esan dezakegu, zalantzarik gabe, literaturaren benetako hezkuntza-funtzioak eskema sinplista horiek gainditu eta askoz maila sotilagoetan eragiten duela. Baina arte-mailako aukera gehiago da intentzio-mailakoa baino. Adibidez, zeresan asko legoke epika edo nobela historikoa bezain genero nobleen oinarrian dauden arte- eta hezkuntza-harremanen konplexutasunaz. Edo giza egoera azaltzen diguten obretan berariazkoak diren






edo ez diren helburuen arteko *continuum*-ari buruz. Horrek ematen dio aukera José M^a Merinori (1997), XIX. mendeko eleberrigileei buruz ari dela, esateko:

«gure kultura belaunalditan zehar sorturiko jokabidez betea dago, erreferentzia gisa, hain zuzen ere, literatura-fikzioetan garaturiko portaera-ereduak dituztenak, eta horiek erakutsi digute, ez bakarrik pentsatzen eta sentitzen, baita ere gure sentimenduak eta jarrerak ezagutzen, dibertsifikatzen eta beren lekuan jartzen».

Eta bere alderdirik didaktikoenean ere, ez dirudi haur-literaturak baztertu behar duenik liburu kopuru handi bat era artistikoan jolasten eta lantzen dituztenak dudarik gabe ikasi beharreko materialak: koloreak bereiztea, zenbaki aritmetikoak edo portaera moraleko zenbait gai.

Bigarren, erlazioa konplexuagoa da, zeren eta irakurketa librearen –artearen eta entretenimenduaren– eta eskola-irakurketaren –heziketaren– arteko diskurtsoak duala izateari utzi baitio. Hamarkadak dira eskolak bere atea zabaltzeko zizkiola liburuaren corpus ez-didaktiko bati, eta baita ere aspalditxo ezarri zen irakurketa-jarduera sorta zabal bat, asko-askotarikoa, eskola barrukoa eta kanpokoa. Zalantzarik gabe, onartu beharko da ate beretik liburu didaktikoen mota berriak sartu direla. Baina baita ere egiaztatu beharko da hezkuntza-iritzien atzerakadak merkatuaren lege kontserbadoreei utzi diela eremua libre.

Hirugarren, gaiak nabardura gehiago eskatzen du, zeren eta irakurketaren harrera eta praktikari buruzko azterketek erakusten dute irakurleak eraikitzen dituzten liburuak ez direla beti beren arte-kalitateagatik nabarmentzen. Gutxi, dakigu oraindik liburuak irakurleengan duten eragin edo inpaktuaz. Gutxi, elementu batzuk hautarazten eta beste batzuk bazterrarazten dizkieten iragazkiei buruz. Gutxi irakurtzeko moduei buruz, sarritan hezkuntza-mezua irakurlearen jardueran jartzen dutelarik eta ez testuaren ezaugarrietan. Horrek guztiorrek «begirada



irakurleari» arreta jartzea eskatzen du, eta horrek, noski, ez ditu testuak bi multzotan banatzen.


Beraz, eremu honetan ondorioak ongi ulerturiko literatura-burujabetasunaren, irakurlearen begiradari arreta jartzearen eta liburu hezitzaileen duintasunaren indarra seinalatzen du.


3. Adjektiborik gabeko literaturari buruz: bolizko dorrearen irekitzea

Nolabaiteko autonomia irabazi eta gero pedagogiari buruz, haur-liburuei behar hainbat meritua aitortu zitzaizkien literatura-kritikaren begirada erakartzeko. Beraz, borroka gogorra hasi zuten «literatura» hitzaz jabetzeko eta ez izateko soilik fikzio, narratiba, bertsifikazio edo dramatizazio gisa hartuak. Hasieratik, literatura-azterketak ez ziren arduratu haur-literaturaz, Lolo Rico-ren metafora adierazkor batean «*benetako arkitekturen aurrean hondarrezko gaztelu*» gisa hartzen zirelako (Rico, 1986). Mespretxu hori ez zen folklorera hedatzen, zeren eta, azken batean, hau ez baitzen «haurrentzat» sortu. Eta halaber, nolabaiteko etorkortasunez toleratu ziren gazteentzako eleberrizko klasikoak ere, azken batean, gizarte modernoaren herri-literaturari baitzegokion. Horrekin, susma daiteke, hamarkada luzetan, kritikariek beren haur-irakurketak bakarrik onartu zituztela.

2000ko gure Biltzarrean azaldu nuen, hain zuzen, nola irabazi zen borroka hau (Colomer, 2002a), eta beraz orain ez naiz horretan luzatuko. Soilik gogoratu bidea ez zela erraza izan. Esan nuen orduan:

«alemaniar idealismoaren parametroetatik, mende-hasierako estetika sinbolistatik, errusiar formalismotik, frantziar eta alemaniar estilistatik edo angloamerikar New Criticism-etik, zer literatura-dentsitate espero zitekeen hain gaitasun gutxiko irakurleei zuzendutako testu batetik?».





70eko urteen mugan, irteera bat bilatzeko ahalegina egin zen, haur- eta gazte-literatura literatura-genero berezi bat zela postulatu. Estrukturalismoaren eraginpean hasi zen, bada, haurrentzako lanetan «literaturtasun»-marken bilatze eta atzemate etsia. Obra horiek helduen literatura-familia berekoak zirela frogatu behar zen, berekoak nahiz eta «espezifikokoak» izan. Zorionez, hurrengo hamarkadan, literatura-teoriak zabaldu egin zituen bere interesak kontuan hartzeko irakurlea, literatura sistema gisa eta obren literatura-zirkuitua gizarte jakin batean. Hartzearen teoria, sistemen teoria, pragmatika... Zeren eta haur-literatura bere jasotzaileak definitzen baitu, zabalagotze hori funtsezkoa izan zen. Literatura-balorazioaren ardatz hierarkizatu zaharra, gailurra poema baten eztanda-uhinaren literatura-tentsio gorenean jarria, eremu aldakorrago eta antolatutago bihurtu zen, eremu horrek, haur-literaturaren kritikarako, testuaren analisia, irakurlearen harrera eta hezkuntza-bitartekotasuna batu egiten zituelarik.

Eratze-historia horretatik abiatuta, azken hamarkadako nobedadea da haur-literaturari buruzko literatura-azterketek areagotu egin dutela beren garapena ikuspegi multidiziplinar aberats batetik. Orain askoz sarriago aurkitzen dira ikerketa-taldeak, ugari dira unibertsitate-ikastaroak, baita ere webguneak eta kritika-aldizkariak, eta etengabe egiten dira topaketa akademikoak edo dibulgaziozkoak inplikaturiko sektore guztien artean eta herrialderik gehienetan. Haur-literaturaren kritikak era guztietako azterketa-tresnak eta emaitzak aukeratu eta inportatu ditu beste jakintza-arloetatik. Aldi berean, bere arloan sortu diren galdera estimulagarrien bidez erronkak aurkezten ere hasi da; zeren eta bere galdera propioak sortzeko aukera baita ezagutzaren perspektiba berria, lortu duguna bezalakoa, zehazten duena.

Beraz, arlo honetan ondorioa da teoriaren indarra egiaztatzea: litera-





tura-azterketen etxe handiarekin, baloraziorako betaurreko berriekin eta ezagutzaren eztanda-uhinarekin.

4. Kultura-eztabaidari buruz: hedabideen konkista erlatiboa

Arlo honetan eskaria aurreko aitorpen-nahiaren luzapena da, baina hedaduraz gehiago intentsitatez baino. Noizean behin haurrentzat idatzitzi dutenei, Andersen berarengandik hasita, gogaikarri gertatzen bazaie beren ospea produktu «txiki» honekin lotzea, haur-literaturaren idazleei gogaikarria gertatzen zaie beren lanen kritika zehatzagorik eta luzeagorik ez jasotzea, nahiz eta, agian, leku gehiago eskaintzeak orain hedabideen aipamen txikietan baino kritika latzagoak jasotzea ekarri ahal izango lukeen. Sektorea garatu ahala, orokortuz joan da haur-literaturaren «ikusezintasunari» buruzko kexa administrazioen kultura-programa, aldizkari edo sustapenetan.

Horren aurrean esan behar da, hasteko, hedabideen arreta-maila ez dela harrigarria. Alde batetik, kulturak eta haurtzaroak gizarte-zabalkundean hartzen duten lekutik eratortzen da. Bestetik, komunikazioaren profesionalek ez dute prestakuntzarik izaten haur-liburuei buruz, eta aurreko atalean aipaturiko konkista horiek arrotzak zaizkie, horrela betikotu egiten delarik hemen kultura-balioen hierarkia zaharra.

Eta, hala ere, egoera hori nabarmen hobetu da azken aldiko zenbait fenomenorengatik. Lehenik, merkatuaren presioagatik, zeren eta Harry Potter eta eklosio fantastikoa, edota *Crepúsculo* eta erromantizismo ilunen berpiztea bezalako argitalpen-fenomenoek hunkitu egin dituzte hedabideak, ohartu baitira zer-nolako gizarte- eta ekonomia-dimentsioak dituen kulturaren begirada elitistaren azpian setati garatu den kultura-gai txiki horrek. Bigarren, masa-gizarteotan, argitalpenek helduen *best-seller*-etarantz eta ikus-entzunezkoek produktu infantilizatueta jo izanak giro naturalagoa eskaini dute haur-literaturari arreta jartzeko. Hirugarren,

teknologia berriek eragindako demokratizazioak gaiari buruzko webgune, irakurle-elkarte eta eztabaiden presentzia garrantzitsua ezarri dute gizarte-sareetan. Fenomeno horien alderdi batzuk ez dira agian albiste handi bat izango guk kulturaz dugun ideiarako, baina bai ziur asko haurrentzako liburuetara arreta erakartzeko.

Beraz, arlo honetan ondorioa da konkistaturiko gune txiki baten indarra areagotzen ari dela, nahiz eta agian ezin ditugun oraindik horren kausa guztiak ospatu.

5. Aisialdiko formei buruz: irakurketa-animazioaren amarauna

Haur-liburuei buruz hitz egitea helduok haurren eskuetara eramaten ditugun moduei buruz hitz egitea da. Irakurle egonkorak sortzeko helburuan eskolak izandako porrotaren aurrean, ideia bat zabaldu zen: irakurtzera behartzeak irakurleak galtzea zekarrela. Beraz, gizarte-alarmak irakurketa askearen aldera makurtu zuen balantza. Irakurtzea deseskolariatzeko helburua eta «*irakurri aditzak aginterarik ez duen*» usteak tentsio berria sortu zuen kalitatezko obrak irakurtzearen eta, zernahi dela ere, irakurtzearen artean.

Irakurtzera bultzatzea izan zen, beraz, helburu berria. Jakina, ez zen mugatu kanpoko espaziora, baizik eta eskolan ere sartu zen (Colomer, 2003). Laurogeita hamarreko hamarkadan, eskoletako korridoreetan askotariko eragileak ikusi ziren: ipuin-kontalari profesionalak, herri-erakundeetako maleta-eramaileak aldi baterako liburuz beteta, txotxongilo edo olerki-errezitaldien ikuskizunetako taldekideak tailer edo unean uneko ospakizunen arduradunek kontratatatuak, irakurle-elkarteen antolatzaileak, beren liburuez hitz egiteko prest zeuden idazleak, eta argitaletxeetako saltzaileak irakasle lanpetuak tentatzeko material eta gidaliburuak prest zituztela. Eta fisikoki ez sartu arren, baita ere eskoletako leihoetara hurbiltzen hasi ziren sustatzaile asko ere, beren laguntza birtuala eskaintzeko idazleen webgune, argitaletxe edo hezkuntza-administrazioen, eskole-tako aldizkarien edo beste ikastetxe batzuetako irakurleekiko trukearen bidez.

Irakurzaletasuna hedatzeko horrenbeste jende interesatuta egoteak inoiz baino ingurune aberatsagoa sor zezakeen, idatzitakoa eskatzeko eta horretan murgiltzeko... baina jarduera frenetikoazko kaos bat ere sor zezakeen, hor neska-mutikoak atseginez ibiltzeko, baina beraien irakurketa-ohituren heziketan inolako ondoriorik izan gabe. Eragozpen hori indar hartuz joan zen. Animazioaren beroaldia igaro ondoren, eskolaren erantzukizun berezia zein den eta itunak zertarako behar diren mugatzearen alde egin zuen tentsioak, proiektu egonkorren plangintzaren eta jarrera didaktiko berrituaren alde, betiere ahalegintzea merezi zuten testuak





lantzeko haurrei laguntza aktiboa eta eutsia ematean oinarriturik. Horrek gogorarazi zigun irakurtzeak isiltasuna eskatzen duela, iraunkortasuna eta konplizitatea (Colomer, 2002b).

Arlo honetako ondorioa da irakurgai onaren indarrean bermatu beharra dagoela: hots, jada metaturiko ezagutza bat badagoela, bai haur-irakurketaz arduraturiko eragileen artean jokoa banatu ahal izateko, eta bai eskolako irakurtze-ikastea hobetu ahal izateko.

6. Merkatu-legeei buruz: kaskarkeriaren uholdea

Haur-literatura kontsumo-gizarte batean garatu da kultura-produktu gisa, eta bere ekoizpen-testuinguruak eraldaketa ahaltsuak jasan ditu. Onerako eta txarrerako. Haur-literaturarentzat eta gainerako liburu guztientzat. Alde batetik, onuragarri zaizkigu genero, titulu eta prezio aldetik askotarikotasun izugarria izatea, herrialde guztietako itzulpenen zirkulazio handia, baita sariak eta idazleak profesionalizatzeko aukerak ere. Bestalde, produkzio eta salmenta masiboko ereduak liburu onak deskatalogatzea eragiten dute, sorturiko gorpil zorabiagarriak ez du astirik ematen beste liburu batzuk onak diren edo ez jakiteko, eta bai zailtasun handiagoa zer obrak aukeratzeko eta erreferentzia-puntu partekatuak sortzeko. Tirabira dago kultura-irizpideak galtzeagatik argitaletxei eraso egiten dietenen eta defendatzen dituztenen artean, hauek uste dutelako merkatuaren benetako funtzionamenduak negozio gisa planteatzea eskatzen duela bizirik irauteko.

Egia esateko, hau da gudurik zailena kalitatezko literaturarentzat. Kaskarkeriaren uholde batek urtero milaka titulu berri merkaturatzen ditu, irakurleen interesa antzutzeko edota estereotipoa, moda, didaktismoa eta baliorik kontserbadoreenak sustatzeko arriskuarekin. Liburu horiek irakurri behar badituzte, agian hobe haurrak beste zerbaitetara dedikatzea. Dena den, kalitatezko haur-literaturarentzat onuragarria baldin bada

argitalpen-industria ahaltsua, zentzugabea da testuinguru berriaz gaizki esaka aritzea eta industria multinazionalari errua botatzen entreteneitzea. Hobe kritika berri baten ardura hartzea alea eta lastoa zorrotz banatzeko, nahiz eta orain lastoa ondo zaindutako argitalpen eta salmenta-estrategietan bildua etorri. Eta sektore guztien artean konplizitate-zirkuituak ezarri behar dira benetan interesatzen zaigun produkzio-zatia ekoitzi, detektatu eta sustatzeko.

Eremu honetan ondorioa da kalitatezko literaturan dagoela indarra, hori ahalbidetzen duten konplizitateak finkatzeko aukerarekin.

7. Irudiari buruz: azterketa teorikoa eta eutsi beharreko beso-borroka

Jakina, haur-literatura sortu zenetik bere parte da irudia, baina orain ikaragarri indartu da gizarte-komunikazioan duen presentziagatik, aukera tekniko berriengatik, salmenta kontsumistaren estrategiengatik eta egungo artearen kodeek bat egiteko duten joeragatik. Arlo honetan haur-literaturak arte-forma berritzaile bat ere ekarri du: albuma. Lorpen honek sektore guztien poza eragin du. Egia esateko, zeharo menderatu gaitu liburu hauen edertasunak, arte-adierazpenerako ireki dituzten aukera berriak eta irakurketa-heziketa sustatzeko gaitasunak, gure arreta erakartzen duten liburu ikusgarriak direlako, irakurterrazak, interpretatzeko iradokitzaileak edo ikasgelan edo etxean tarte laburretarako egokiak.

Eta hala ere, dena ez da onuragarri. Albumek ere aurreko atalean produkzioaz adierazitako ezaugarri berberak dituzte. Beraz, eragin kontsumistatik soilik bizi diren liburu asko daude, beste hainbat obra desorekatzen dutenak irudiak irentsitako testu hutsala dutelako, eta beste batzuek lanketa-eza ezkutatzeko irakurleari uzten diote zentzua emateko ardura.

Horrenbeste ikusmen-lilurak ez digu ahaztarazi behar giza interpretazio orotan, baita irudienean ere, inplikaturik dagoela hizkuntza-pentsaera. Pentsamenduaren, hizkuntzaren eta ikusmen-interpretazioaren arteko erlazioak gai zentrala izan dira hainbat jakintza-arlotarako XX. mendean zehar. Erronka bat dira orain hobeto ulertzeko nola funtzionatzen duen albumen irakurketak, zein puntutaraino garatzen diren paraleloan edo elkarlanean ikusmen- eta hizkuntza-gaitasuna, zein puntutaraino bat egiten duen irakurleak kode-irakurketa edo txandakatu egiten duen etenak eginez. Zorionez, azken aldiko argitalpen askok erakusten du ikerketak sutsu ekin diola azterketa arretatsu honi (Colomer, Kümmerling-Meibauer, Silva-Díaz, 2010a, 2010b).

Eta praktikan, gaur egungo album asko ikusita, gogoratu behar da testua irudiarekin doanean, horren indarrak eutsi egin behar diola beso-borrokari bat-egite edo fusioak benetan zentzu-maila berriak eskain ditzan.





Erreferentziak

Bettelheim, B.; K. Zelan (1981): *On Learning to Read. The Child's Fascination with Meaning*. New York: Knopf (Gazt. itzul. *Aprender a leer*. Bartzelona: Crítica, 1982)

Chartier, A. M.; J. Hébrard (1990): *Discours sur la lecture (1880-1980)*. Paris: BPI-Centre Georges Pompidou (Gazt. itzul.: *Discursos sobre la lectura (1880-1980)*. Bartzelona: Gedisa, 1994).

Colomer, T. (2002a): "Nueva crítica para el nuevo siglo" *CLIJ. Cuadernos de Literatura infantil y juvenil* 145, 7-17. Eskuragarri on line: www.gretel.cat, «Documentos» atalean.

Colomer, T. (2002b): «El papel de la mediación en la formación de lectores». T. Colomer, E. Ferreiro, F. Garrido: *Lecturas sobre lecturas*. Mexiko: Cultura eta Arteetarako Kontseilu Nazionala, 9-29. Eskuragarri on line: www.gretel.cat, «Documentos» atalean.

Eta esan behar da testuaren eta irudiaren interpretazio-ikaskuntzak baita ere ahalbidetu behar duela gaitasun-bide desberdinak jarraitzea arte plastikoetan eta literatura-hitzean. Tentsio-puntu interesgarria irekitzen da hemen, ikusmenaren nagusitasuna duen haur-literatura horrek duen eraginari eta testu hutseko literatura-kontakizunen harrera-gaitasunari buruzko galdera.

Arlo honetan ondorioa da geure buruak zoriondu behar ditugula irudiaren erabilera berrien indarragatik, betiere eutsiz hitzari botatako erronkari.

8. Fikzio-forma berriei buruz: karta-sortaren banaketa berria

Baina kode-asoziazioak are bide desberdinagoak aztertzen ari dira. Narrazio-elementuen asoziazioak eta anbiguotasunak errealtatearen pertzepzioan duten eragina ikertzea interesatzen zaio fikzioari eta teknologia berrietatik eratorritako forma berriak hartzen ditu, itun multimodalak eginez irudiaren, ahozko eta idatzizko hitzaren eta digitalizazioaren artean.

Aspalditxoan arrakastazko edozein lanek bere ibilbide partikularra ezartzen du komunikazio-moten artean igarotzeko. Bide eginagoetatik ibil daiteke (adibidez, Philip Pullman-en *His Dark Materials* (gazt. «*La materia oscura*») liburuak antzerki, irrati, liburu eta zineman ondoz ondo egindako bidea). Edota jauzi bat-batekoagoen bidez egin (adibidez, *Eraztunen jauna* lanak, liburutik rol-jokora eta hemendik zinemara hiru mende-laurdenetan). Edota haratago joan daitezke liburuak pantailekin lotuta sortzen direnean. Pantaila arteko aldaketa horietan, telesailetatik zinemarako saltoa egin da orain, edota zinema eta bideojokoen bat

-etortze handia gertatu da bideo-kontsolak ugaritzearen bidez. Tresna berriek ahalbidetzen duten elkarrekiko loturagatik edota internet bidezko baterako parte-hartzeagatik, bideojokoak neska-mutilen gelatik familia osoaren egongelara aldatzen dira pantaila handiaren praktika sozializatu berreskuratuz. Honela bada, berrikuntza teknologikoen azelerazioa pantailen arteko bat-egite oso aktiboa ari da markatzen, eta prozesu horretan azkena mugikorren garapen bizkorra izan da.

Igarotze horiek ezaugarrien lekualdatzea ere ekartzen dute. Aspalditxotik zinemak eta telebistak eragina baldin badute literatura-idazkeran, orain pantailen arteko migrazioa da merkataritza-zineman nagusi diren ezaugarri batzuk definitzen dituen: lastertasuna, efektu bereziak edo kohesiorik eza. Eta esan daiteke, fikzio-era guztietan azkar ari direla zabaltzen testu-zatitzea, arte-sistema desberdinetako fikziozko elementuen konbinazioa, elementu ezagunen aipamena eta berrerabiltzea, asoziatutako kontsumo-produktuen hedapena, eta obren, idazleen eta irakurleen arteko interaktibitatea sarearen bidez.

Ezaugarri horiek nola eragiten dioten kalitatezko haur- eta gazte-literaturari eztabaidagai da. Fikzioen arteko aldaketak edota desberdintasunak eta antzekotasunak deskribatze hutsak ez gaitu oso urrutira eramango. Erronka da fikzio- eta literatura-esperientzia ahaltsua lortzea testuinguru berrian ere. Kritikan azaleratzen den lehenengo gauza galera-sentimendua da obrak baloratzeko erabiltzen ditugun parametro egonkorrengatik. Honela, literaturaren mundutik aspalditxoan alerta jotzen bada testuaren ahultzeaz, orain zinemaren mundutik sortzen dira ahotsak bideojokoek zazpigarren artearen ezaugarrietan zertutako kolonizazioa salatuz. Joko-mahaian fikziozko eta artezko karten banaketa berria hasi da eta ezin ditugu bistatik galdu batekoak, ea eraldatu, biderkatu ala crupierrak garbitu egingo dituen jakiteko.

Arlo honetan ondorioa da formak gehitu eta dibertsifikatu direnez galdetu beharra daukagula literatura-fikzioaren indarrak.

9. Tentsio iraunkorrean dagoen gun bat

Honaino egindako ibilbidearekin bisualizatu nahi izan dut kalitatezko haur- eta gazte-literaturak egin behar izan duen indarra benetako literatura-esperientziaren gun bat garbitu, eraiki, legitimatu eta eusteko. Gutxiengoaren sail bitxi bat da, guztiekin tea hartzera behartua, aipaturiko arlo guztiekin harreman zabal, askotariko eta intentsoak izan beharrean dagoena eta horietako bakar batean ere ez disolbatzeko erronkari aurre egin behar diona. Ekoizpenaren, zati zehatz honetan harrera eta bitartekotasunean interesaturik gaude, dudarik gabe, hemen gauden guztiok. Baina bere hobekuntza eta jarraitutasuna zaintzeko badugu orain hasieran

Colomer, T. (2003): «La escuela y la promoción de la lectura», Irakurketa-sustatzailen I. Topaketa, Guadalajarako Liburuaren Nazioarteko XVII. Azoka. Kultura eta Arteetarako Kontseilu Nazionala, CERNALC, Guadalajarako Unibertsitatea (Jalisco) Guadalajara (Mexiko) Eskuragarri on line CLIJ bertsioan «Quién promociona la lectura»: www.gretel.cat, «Documentos» atalean.

Colomer, T.; B. Kümmerling-Meibauer, M. C. Silva-Díaz (koord.) (2010b): *Cruce de miradas: Nuevas aproximaciones al libro-álbum*. Bartzelona: Banco del Libro-Gretel.

Colomer, T.; B. Kümmerling-Meibauer, M. C. Silva-Díaz (ed.) (2010a): *New Directions in Picturebook Research*. NY-London: Routledge.

Lurie, A. (1990): *Don't Tell the Grown-Ups. Subversive Children's Literature*. London, Bloomsbury. (Gazt. itzul: *No se lo cuentes a los mayores. Literatura infantil, espacio subversivo*. Madril: Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa, 1998)

Merino, J. M. (1997): «León Tolstoi: La novela de un matrimonio». *Revista de Libros* 6. zka., 50. or.

Montes, G. (2001): *El corral de la infancia*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica. 2. argit.

Rico de Alba, L. (1986): *Castillos de arena. Ensayo sobre literatura infantil*. Madril: Alhambra.



ez genuen abantaila bat. Bidegurutze zehatz horretan inplikaturiko sektore profesionaletako bakoitzak ahalegin handia egin izan du bere indar zentrifugoetako batzuen aurka. Gaur egun inoiz baino liburu gehiago eta hobeak ditugu, eta liburu horiek haur gehiagorengana eta testuinguru askotarikoagoetara iristen dira gizateriaren historia osoan baino. Eta horrela indarra ematen digun ziurtasun bat lortu dugu: badakigu egiten.

Teresa Colomer ofreció una conferencia en el congreso organizado por el IBBY con el título de:

La literatura infantil: una minoría dentro de la literatura

La conferencia versó sobre ocho debates principales:

- *La literatura de tradición oral y la literatura dirigida al público infantil; sus relaciones, su presencia y sus funciones.*
- *La relación entre literatura y pedagogía; la lectura libre o la lectura escolar obligatoria. La calidad literaria y el éxito literario (no siempre van de la mano).*
- *El consenso en considerar a la literatura infantil y juvenil como literatura y no como nada más. La aparición de la crítica sobre literatura infantil y juvenil específica.*
- *La "invisibilidad" de la literatura infantil en los programas culturales, revistas o promociones de las administraciones, aunque existen excepciones.*
- *La telaraña de la animación lectora.*
- *Las leyes del mercado y la marea de la mediocridad, la sociedad de consumo también en la literatura infantil y juvenil.*
- *La presencia del álbum ilustrado y su aportación artística innovadora, con luces y sombras.*
- *Nuevas formas de ficción, la mezcla adecuada entre imagen, la palabra oral y escrita y la digitalización.*

De esta manera Teresa Colomer cumplió las expectativas creadas y dio pie a la reflexión sobre diferentes cuestiones inmersas en la literatura infantil y juvenil.

Teresa Colomer gave a talk at the conference organised by IBBY. Her talk was entitled:

Children's literature: a minority within literature

The eight main issues she dealt with were as follows:

- *Literature in the oral tradition and literature geared towards the children's audience; its relationships, presence and functions.*
- *The relationship between literature and pedagogy; free reading or compulsory school reading. Literary quality and literary success do not always go hand in hand.*
- *The consensus when considering literature for children and teenagers as literature and nothing else. The emergence of criticism of literature specifically for children and teenagers.*
- *The "invisibility" of children's literature in cultural programmes, magazines or promotions by the administrations, although exceptions do exist.*
- *The spider's web of encouraging the reading habit.*
- *Market laws and the tide of mediocrity, the consumer society is also present in literature for children and teenagers.*
- *The presence of the picture book and its innovative artistic contribution, with positive and negative aspects.*
- *Fresh forms of fiction, the right combination between the image, the oral and written word, and digitalization.*


Teresa Colomer thus fulfilled the expectations that had been raised and facilitated reflection on the various questions linked to literature for children and teenagers.

Translated by Sarah J. Turtle

Neskatilak, gehiengoa edo gutxiengoa

Mariasun Landa

IÑAKI MENDIGURENEK itzulita



Nesken haserrea

Mahai-inguru honetan proposatu diguten gaia Haurren- eta Gazteen-Literaturan (HGL) generoaren trataerari buruzko gogoeta bat bezala interpretatuz, elkar hartu dute nigan feminista izateaz lotsatzen ez den, Euskal Herriko Unibertsitatean HGLko irakaslea den eta bere atzetik gazteei zuzenduriko 35 argitalpen baino gehiago dituen idazlea. Hiru ahots, auziaren konplexutasunaren aurrean asko ez izan arren, elkarrekin gurutzatzen direnak, elkar interpelatzen dutenak eta agian elkar gezurtatzen duten ahotsak.

Nolanahi ere, ordena eta hierarkia ezarri nahi izan dut haien artean, eta erabaki dut hitza hartuko duena idazlearen ahotsa izatea, nire esperientzien eta kezken berri emango duena, nire galderak ekarriko dituen. Nahiz eta feminista eta irakaslea ere noizbehinka tartean agertuko diren.

Horregatik, haserreaz hitz egiten hasiko natzaizue. Nesken haserreaz, eta, horretarako, nire *alter ego* literarioarengana joko dut, Iholdirengana, bere eguneroko bizitzatik, 80. urte aldera, ohartxoak jaso zituen neskatoarengana.

Dilijentzia

Kalean dagoen auto zahar abandonatu batean sartu gara jolastera.

Pellok eta beste mutilek esan dute indioetara jolastuko garela eta auto zahar hura dilijentzia bat izango zela. Neskak dilijentzian sartzeko eta beraiek atakatuko gintuztela...

—Eta gero, zer?

—Zuek indioak ikusi eta desmaiatu egin behar duzue.

Eta guk horrela egin dugu.

*Gero, nik esan dut alderantziz egiteko, eta Pe-
llok esan du ezetz. Beraiek ez zirela desmaiatzen.
Eta neskak haserretu egin gara indioena egin nahi
genuelako eta beraiei tokatzen zitzaielako dilijen-
tziakoak izatea.*

*Azkenean onartu dute, baina autoa inguratu
dugunean, ateak zabaldu eta tiroka hasi dira. Inor
ez da desmaiatu, eta gu berriro haserretu gara.*

Mutilekin ez dago jolasterik

Begi-bistakoa da neskatoa haserre zegoela. Neu ere halaxe egoten nintzen txikitan, eta arrazoi osoz uste dut. Hasteko, unibertsitatera joateari itxaron behar izan nion ikasgelan mutilak izateko. Nire heziketa ikastetxe erlijioso bati zegokiona izan zen, frankismoaldi betean, eta bertan giro atzerakoi eta zapaltzailea zen nagusi. Irakurketak leiho bat ematen zidan ihes egiteko, amets egiteko, baina ezin nintzen identifikatu sarritan aurkitzen nituen pertsonaia emakumeekin: eraman handiko neska pasibo, otzanak... ziren, printzesa nagiak, ergelak eta, batez ere, motelak, oso motelak. Bai, oso haserre nengoen seguru asko, zeren anaiari lapurtzen bainizkion abentura-liburuak, intri-gazkoak, emoziozkoak, mutil batzuk pertsonaia nagusi zituztenak eta haietaz maitemintzen nintzen nire mutil-lagunak balira bezala. A zer bide xelebrea egin behar izan genuen nire belaunaldiko neskok, ikastetxe erlijioso ez-mistoetan eskola hartu genuenok, inoiz izango ez ginen mutilekin identifikatzeko eta jarraibidetzat ezartzen zizkiguten emakume-ereduez bestelakoak izan nahirik! Ez nintzen batere originala izan: neuk ere, L. M. Alcott-en «emakumetxo» haien artetik, Jo aukeratu nuen, gainera hark ere idazle izan nahi baitzuen nik bezala.

Baina Iholdi beste belaunaldi batekoa da. Hark ere, Wendyk bezala, haztea erabaki zuen, eta neure buruari galdetzen diot haserreturik jarraituko ote duen.


Neure buruari galdetzen diot zer moduz mol-

datzen ote den ikasgelako lagunak zituen mutil haiekin, dagoeneko gizon bihurturik daudenekin. Eskandalizatzen ote den, urte-sasoi honetan, eta lerro hauek 2010eko abuztuan ari naiz idazten, 42 direlako beren bikotekideek asasinatutako emakumeak espainiar estatuan; ea sinatu ote duen indultu-eskaera harrikatu nahi duten desleialtasunaz akusaturiko emakume irandar horrentzat eta zer iruditzen ote zaion talibanek nesken eskolei erasotzea Afganistanen, beste zentzugabekeria batzuen artean. Ea pentsatzen ote duen, toki askotan, oraindik ere *handicap* bat dela emakume jaiotzea, arrisku bidegabe bat, eta, gure ingurunean, sexuen arteko berdintasun-itxurapean lan-, gizarte-, kultura-bereizkeria eskandaluzkoak gertatzen direla...

Edo Iholdik beharbada pentsatzen du, nire eskoletako unibertsitateko ikasle gazte batzuek bezala, ez dagoela inolako bereizkeriarik, femenismoaren kontu hori zerbait zaharkitua eta antzinakoa dela, beren oraingo egoera konkista bat dela ahaztutaz, emakumearen duintasunaren aldeko borroka luzearen emaitza.

Ez dakit

Neure aldetik, aitortu behar dut, batzuetan, oraindik ere oso haserreturik egoten naizela eta ia beti kezkatutik gizarteko sexismoaren gaiarekin, eta literaturakoarekin bereziki. Zeren eta emakumeak gizartean jokatzeko duen paperak bilakaera handia izan badu ere, ia ikusgarria izan dela esan genezake, oraindik ere liburuetan, komikietan eta hurrei eta gazteei zuzentzen zaizkien gaine-rako kultura-agerpen guztietan aurkeztu diren gizonezko eta emakumezko ereduak estereotipo sexistetan erroturik jarraitzen dute. Gogora ditzagun gaur egun argitaratzen eta kontsumitzen diren *chick literaturako* obren egungo arrakasta eta ugaritasuna. Sexu-estereotipo berrien sortze faltsu hori, betikoak baitira baina makillaje berri baten azpian aurkeztuak. Heziketa mistoa gertaera



bat da hezkuntza-maila guztietan, baina gizonezko balioen nagusitasuna ez da auzitan jartzen, emakumeek eta neskek bere egin behar dituzte, emakumezkoen unibertsoa bigarren mailakoa da oraindik ere.

Horregatik, eta haserre emankorra delako samintasun bihurtzen ez bada, nire lehen ipuinetako pertsonaia nagusi asko emakumeak izan ziren. Neska ekimendun, aktibo eta kementsuak. Bai eta mutiko sentibera, intimista eta, eskuarki arrarotzat hartzen zirenak ere. Orduan pentsatzen nuen, eta oraindik hala pentsatzen dut, sexismoa pobretzailea eta kaltegarria dela mutikoentzat, bai eta gizonentzat ere. Hasteko afektibitatearen, sentimenduak adierazi eta kudeatzearen mundua ukatzen zaie, emakumezkoen ezaugarri diren balioak.

Nolabait ere, balio berri aurrerakoiak haurren eta gazteen literaturara eraman nahi izan zituzten emakumeen, irakasleen, liburuzainen kolektibo zabal baten mugimendu horretan esku hartu nuen; haur-literatura alternatiboan, emakumeentzat diskriminatzailea zen guztiari aurka egingo ziona. Neskei rol nagusia eskaintzeak eta rol-aldaketaren

jolas dibertigarri batek markatu zuten aldi hura, non Adela Turín-en *A favor de las niñas* album-bildumak egiazko mugarrria jarri baitzuen, gaur egun zutik dirauena.

Atzerantz begiratuz, nire literatura-ekoizpenean aldi pozgarri bat izan zen, ia erraza, nahiz eta berria uste dudana garai hartarako, zeren azkenerako gogaiturik bainengoen azalpenak ematen. Egiten zizkidaten elkarriketa guztietan galdetzen zidaten zergatik zeuden nire liburuetan hainbeste emakume pertsonaia nagusi zirenak... eta halakorik ez zitzaientzat eskatzen gizonezkoak pertsonaia nagusi zizutzen liburuen idazleei.

Geroago, emakumezkoak pertsonaia nagusi izateak utzi egin zion erronka izateari eta xarma ia komertzial bihurtu zela esatera ausartzen naiz.

Baina ordurako, bazen kezkatzen ninduen zerbait... Asmo on haiek partekatzen banituen ere, pertsonaia nagusi pirata, futbolista, sorgin jakintsu, printzesa gaindohatu eta otso zintzoen ugaritasunak, rolak alderantzizkatzeak, emakumeen mundua idealizatzeak, obra jakin batzuen izaera utopiko eta manikeista samarrak ondoeza sortzen zidaten. Berandu baino lehen izan nuen bilakaera

emakume-haur baten ahotsaren bila, rolak alderantzikatzea baino ikuspuntu fiabar eta konplexuago baten bila; eta «Diligentzia», irakurri dizuedan *Iholdi* liburuko zatia, izan daiteke horren adibide bat.

Sentitzen nuen literatura ona ez dela beti arrazoi onekin, aldeztetik finkatutako eduki aurretikoekin egiten dena. Intuizioz, gorde egiten nituen neure konbikzio feministak artikuluetarako, edo beste agerpen ez literarioetarako, konpromiso politiko edo heziketakoak barnean zirela. Literatura beste gauza bat zen eta da niretzat.

Gogoan dut nolako alarma sortu zuen nigan pasatu zidaten *Fuera moldes* liburu baten laburpenak: *Nola idatzi ipuin ez sexista bat*.

Laburpen egokitu hartan adierazten zitzaigun gure liburuek izan behar zituzten ezaugarriak, sexistak izan nahi ez bazuten:

- gizonezko eta emakumezko pertsonaien bidezko banaketa, izenburuak, aipuak eta irudiak kontuan harturik
- emakumezkoek eta gizonezkoek ipuinean burututako rol desberdinen bidezko banaketa.
- rol haietako ezaugarri positibo eta negatibo bidezko banaketa.
- pertsonaien itxura fisikoari eta janzkerari buruzko arauak.
- haien tasun eta akats intelektulei buruzko arauak.
- haien tasun eta akats afektiboari buruzko arauak.
- haien tasun eta akats nahimenezkoen buruzko arauak.
- Eta nola baztertu sexismoa hiztegian, gramatikian eta sintaxian.

Pentsatu nahi dut sentitutako itomena eta amorrazioa laburpen baldar eta dogmatiko bat izateagatik sentitu nituela neurri batean. Hark ez zuen inolako zerikusirik literaturarekin.



Etsigarria da 70. eta 80. urteetako gure planteamenduen parte bat zuzentasun politikoan, literatura lau bat sustatu duen fundamentalismo halako batean bukatu izana, zeinek gatazkak saihesten baititu, zentsura ezartzen baitu, agian, literaturaren betekizun pedagogikoaren interpretazio txar baten ondorioa dena. Izan dira egileak horri buruzko argitaletxearen presioa, irudikatzen dutena idazteko beldurra salatu

dutenak, hitz batean: askatasun falta. Hainbesteko protekzionismoa ez da egokia, ez da bateragarria sortzearen munduarekin. Literatura idaztean ez al gara ari zerbait oso pertsonala, geure izate sakoneneke zerbait jokoan jartzen? Ezar al daiteke sexismorik eza teoriekin, kanpotik?

Harrezkero ez diot utzi horri buruz galdera egiteari.

- Galdetzen dut ia gizarte sexista eta patriarkal batean idatz ote daitekeen halakoa ez den literaturarik eta zer neurritaraino... desfase handi bat gertatu gabe, fikzioa gizarte-aurreapenen aurretik joan gabe, azkenaren buruan, panfleto bat idatzi gabe. Ez ote da, besterik gabe, literatura sexistak izaten jarraitzen badu gizarteak halakoa izaten jarraitzen duelako, nahiz eta guri batere ez gustatu?

- Galdetzen dut ia idatz ote daitekeen norberak sinesten ez duenaz, sentitzen ez duenaz, barrenean, pentsatzen ez duenaz... Berdintasun Lege batek konpon ote dezakeen. Nahikoa al dira asmo onak?

- Galdetzen dut non dagoen HGLa sortzeko askatasuna, adierazpen- eta komunikazio-beharra, haren unibertso pertsonala, haren askatasuna hitz batean. Aski al zaio HGLren idazleari helarazi nahi dituen balioak, literaturaren betekizun pedagogikoa argi eta garbi edukitzea?

Eta erantzuten saiatzen naiz, neure buruari benetan erantzuten....

Nire kasuan, horrek oro har idazle izatea zer den birplanteatzera narama eta haur- eta gazte-literaturaren idazlea izatea bereziki.

Besteak beste, literatura hori egilearen mundu irudizkoaren bide dela gogoraraztera, haren autoezagutzarena, adierazpen eta komunikazioarena. Nor Bere Herrialdean arrotz bat bezala, atzerritar bat bezala barneratzeko hartaz baliatzen den forma. Eta hau baieztatzean, klasiko handiengan pentsatzen dut, Lewis Carroll, Antoine de Saint Exupéry, James Barrier... eta abarrengan. Niri ere haur-literaturak lagundu egin dit neure buruaz ezagutzen ez nuena baina bizikide nuen hura argitzen, hari forma ematen. Baimena eman behar al diot norbaiti edo zerbaiti prozesu hori manipulatu, balaztatu edo auzitan jartzeko?

Galdera mordo honen aurrean hiru ahots jakintsu deitzea erabaki dut, ahots adiskideak, literaturako hiru dama miretsi: Simone de Beauvoir, Virginia Woolf eta Astrid Lindgren. Ohiturik daude gisako honetako topaketetara deituak izatera; te batekin ematen diogu hasiera eta batzuetan gintonic batekin amaiera.


Simone de Beauvoir-ek gogorarazten dit emakumea ez dela jaiotzen baizik eta egin egiten dela. Hankaz gora botatzen dut emakume-esentzia dagoelakoaren patriarkatuaren ideia. Gauza bat dela biologikoki arra edo emea izatea eta beste bat

generoa, maskulinoa edo femeninoa, ikasten den zerbait dela, zerbait kulturala edo ideologikoa. Horrela, bada, generoa sexu bakoitzarentzat gizarteak lantzen dituen arau desberdinduen multzoa da, bere beharren arabera eta norbanakoei ezarria jaiotzen direnetik, identifikazio-eredu bezala. Hortik erarortzen dira sexu-rolak, generotik erarortitako atazen eta betekizunen multzoa osatzen dutenak eta sexuari zerbait berezia bezala egotziak.

Mahai-inguru honetako gaiaren aurrean Simone de Beauvoir eta biok bat gatoz etsai nagusia estereotipoa delakoan: aldaketarik gabe errepikatzen eta birsortzen den ideia hori, talde bateko kide guztiek erkide duten irudi berdindu hori, ezaugarri banakoak jasotzen ez dituen, dagokien talde-kideei molde edo klise bezala ezartzen zaion ideia orokortua irudikatzen duena, sakon erroturik dagoena, hainbestearino non naturalizat eta sexu-desberdintasunetik erarortitatzat jotzen den.

Estereotipoa ez da sexismoaren tresna soilik, baizik eta literatura onaren etsai handiena, diogu ia soinu bakarrez amaiera gisa.

Virginia Woolf-ek gogorarazten dit idazteko gela propio bat eta 500 libra behar direla. Bai, banekien. Leku bat eta autonomia ekonomikoa. Baina diruari eta lekuari beste eragozpen handi bat gehitu behar zaiola: emakume bezala idaztea, eta horrek, haren arabera, nolabait, norbere sexuaz





Mariasun Landa participó en una mesa redonda en el 32º congreso organizado por el IBBY con el título de:

Niñas, mayoría o minoría

Partiendo de la creencia de que los reunidos alrededor de la mesa redonda participan de un deseo común a favor de una literatura infantil y juvenil no sexista, Mariasun Landa se interroga por la forma en que la propia creatividad y libertad del autor/a puede conjugarse con las buenas intenciones, un cierto proteccionismo y hasta cierta censura que ha impuesto la corrección política ante este tema. Si se puede hacer una literatura no sexista en una sociedad que sigue siéndolo sin que se cree un desfase entre la realidad y la ficción. Y recuerda, aludiendo a tres autoras referenciales para ella (Simone de Beauvoir, Virginia Woolf y Astrid Lindgren) que el escritor/a debe escribir desde su imaginario personal y su libertad creativa. No puede renunciar a ello porque la literatura vehicula su necesidad de autoconocimiento, expresión y comunicación. Después de plantear algunas interrogantes, concluye afirmando que quizás habría que confiar más en la capacidad crítica de los lectores sin caer en la tentación de hacer una literatura recortada llena de buenas intenciones pero que no nutre ni sugiere, solo aburre.

ahaztea esan nahi du. Bai, emakumea dela ahaztu duen emakume batek bezala idaztea, errepikatzen du. Kexa, erreibindikazioa saihestu, edozein kausaren alde idaztea denik eta bidezkoena izanik ere. Bere egiten du Coleridge poetaren gogoeta, zeinentzat arteak androginoa izan behar baitu, haren iritzian artistak bi sexuekin ezkondu behar baitu, izan ere denok dugu zer bait gizonetik eta emakumetik geure barruan. Bestela, idazten dugun hori, «nahiz eta distiratsu eta eraginkor, ahatsu eta maisulan dirudien egun batean edo bitan, zimeldu egingo da iluntzean» xuxurlatzen dit belarrira.

Eta nik irribarre egiten dut neure baitan, zeren eta zimeltzen diren loreen aipamena berriz errepikatzen baitit *Pipi Galtzaluzeren* egileak, Astrid Lindgrenen.

Hark ere *Nire mundu galdua* bere liburu atsegingarrian erabilitako hitz berak gogorarazten dizkit etorkizuneko haur-liburuen egilearengana zuzenduz:

«Idatz ezazu arimatik ateratzen zaizuna eta ilusioz. Bai zuri eta bai haur-liburuen gainerako egileei askatasuna opa dizuet, helduentzat idazten duen literaturgileak berezkoa duen askatasun hura bera, eta nahi duena eta nahi duen bezala esateko baimena ematen diona. [...] pentsa ezazu zeure askatasunean. Zeren askatasun hori gabe, poesiaren lorea berandura gabe zimeltzen baita. Nonahi dagoela ere».

Adiskide bikain hauek ni baretzeko gaitasuna dute, beti eskertzen diet nire haserrea buruargitasun eta sosegu pittin bat bihurtzea.

Eta horrela, mahai-inguru honetako neure esku-hartzea bukatzerara noan honetan, ohar batzuk iradoki eta eskaintzea besterik ez zait bururatzen, ondorio ere izan nahi ez dutenak, hemen ideiak trukatzeko gaude eta.

- Lehena intuiziozko egiaztatze bat litzateke. Agian tolesgabeak izan gara HGLaren ekoizpenean berariazko aldaketa batzuk emakumeen aldeko konkista itzulezinak zirela pentsatzean. Milaka urteko ideologia patriarkal eta sexistak hura zaintze eta borrokatze atergabea eskatzen du. Sexismo horren bizikide izan beharra dago haren kontra borrokan ari garen bitartean. Estereotipoa da etsairik makurrena, ez feminismoarena bakarrik, baizik eta, batez ere, literatura onarena.

- Bigarrena litzateke literaturak oro har eta haur eta gazteentzakoak batik bat gizarte-aurrerapenaren aitzinatzeak eta hutsuneak islatzen dituela, emakumearen bereizkeria gizartean gainditzeko. Une honetan uste dut nahasmendu-une batean gaudela, zeren eta emakume-eredua oraindik izugarri sexista den esparru batean ari



baita bere burua eraikitzen, izan ere emakume eta gizon asko bilaka ari dira, haztamuka, erreferentzia eta errealitate berriak aitzinatze-eta atzeratze-balantza batean.

- Eta amaitzeko, hirugarren ohar bat: benetan sinesten badugu literaturan, berriz baieztatu beharra dago ez dagoela idazterik askatasunik gabe. Ezin zaio ukatu egileari bere unibertsoa komunikatzeko edo adierazteko bitartekoa. Aske izaten utzi beharra dago. Horretara bultzatu, zeren agian horixe baita idazten dena haurrei eta gazteei ere atsegin gertatzearen kausetako bat, zeren ez baitira ergelak eta bai baitakite egile bat noiz ez den uzurtzen edo kikiltzen beraiei hitz egiteko. Agian gehiago fidatu beharko ginatke irakurleen eta bitartekarien gaitasun kritikoaz literatura murriztu, lau, asmo onez beteriko bat egiteko tentaldian erori gabe, izan ere horrek ez du elikatzen ez ezer iradokitzen, aspertu bakarrik. Berehala zimeltzen diren loreak.

Aipatutako bibliografia

- Landa, M. *Iholdi*. Erein argit. Donostia /San Sebastián 1988. 10-11. or. Euskarazko itzulpena
- “Iholdi” in *Tres bichos raros*. SM. Argit. Barco de Vapor. Madril, 2006. 54-55. or. Gaztelaniazko itzulpena.
- Lindgren, A. *Mi mundo perdido*. Juventud argit. Bartzelona, 1985. 80. or.
- Woolf, V. *Una habitación propia*. Seix Barral argit., Bartzelona 1967. 143. or.

<http://www.mariasunlanda.net>

Mariasun Landa participated in a round table at the 32nd (nd elevado como el °) conference organized by the IBBY under the title:

girls, majority or minority.

Taking as the starting point the belief that all those seated at the round table share a common desire in favour of non-sexist literature for children and teenagers, the author is wondering about the way in which the very creativity and freedom of the author can be combined with good intentions, a degree of protectionism and even a certain amount of censorship imposed by political correctness with respect to this subject. And whether or not it is possible to produce non-sexist literature in a society that continues to be sexist, without a gap being created between the reality and the fiction. And when referring to three authors who constitute a reference for her (Simone de Beauvoir, Virginia Woolf and Astrid Lindgren), she is keen to point out that the author should write from his or her personal imaginary and creative freedom. She cannot renounce this, because literature conveys her need for self-knowledge, expression and communication. After raising some questions, she concludes by asserting that perhaps one will have to rely more on the critical capacity of the readers and not fall into the temptation of producing truncated literature full of good intentions that fails to satisfy or evoke, and merely bores.

Traslated by Sarah J. Turtle



Irudiztatzea eta gutxiengoak

Teresa Duran

IÑAKI MENDIGURENek itzulita



Hitzaldi honen helburua irudiztatzearen eta gutxiengoaren arteko harremanei buruz ahalik eta erarik objektiboenean hitz egitea da, baina nire solasaldia oso era pertsonal eta autobiografikoan hasiko dut.

Beraz, aitor dut hirurogeita bat urte ditudala, eta metro eta berrogeita hamarreko altuera. Aukera izugarria dago bi datu objektibo horiekin Biltzarreko partaideen artean oso minoritario edo gutxien artekoa izateko, ezta? Baina are gehiago: emakumezkoa naiz, eta horrek, gaur egun, ez nau inola ere gutxiengo baten barruan kokatzen, ez Biltzar honetan ezta munduko biztanleen artean ere, baina bai –eta datu hau ez da batere gutxiestekoa–, bere sexu-izaeragatik, herrialde askotan *minorizatu*a egongo litzatekeen pertsona bat. Hau da, bereizketa garrantzitsua egin dut minoritario eta minorizatuaren artean. Labur esanda, pertsona minoritarioa naiz, gutxien artekoa, eta gehiengo den baino minorizatu dagoen sexu-talde batekoa, eta, gainera, geografia eta hizkuntza aldetik zirkunstantzia minorizatu batekin: katalana naiz, eta ezin dut edo ez dut zuekin neure hizkuntzan komunikatu behar. Nire herrialdeko poeta batek, Maria Mercè Marsal-ek, zioen bezala:

DIVISA

A l'atzar agraeixo tres dons: haver nascut dona, de classe baixa

I nació oprimida.

I el tèrbol atzur de ser tres voltes rebel.

Baina ni ez naiz poeta, ezta ilustratzailea ere (alor honetan sarraldi batzuk egin arren), eta, beraz, nekez aurkitzen naiz gutxiengoak neure irudietan sartu ala ez ohartuki erabaki beharreko estualdian.

Baina idazten dudanean (eta hori da gehien egiten dudana) kontziente naiz komunikatzeko eta, are gehiago, espresatzeko erabiliko dudana hizkuntzaren eta hiztegiaren aukeraketaz. Eta idazle guztiak ez daude aukera hori egitera behartuta. Are gehiago, batzuei ez zaie burutik pasatu ere egiten berea ez duten beste hizkuntza batean espresatzeko aukera egin behar izan dezaketenik. Horrelako erabaki bat hartu beharraren bidegurutzean etengabe egotea ez da beti ez erraza eta ez atsegina.

Zorionez, ni argitaratzen hasi nintzenean, behin Marta Mata nire eskolako maistrarekin topo egin nuen kalean, eta aholku hau eman zidan:

«Teresa, zu oso berritsua zara, hitz artean galtzen zara... Sortze-lan bat egiten duzunean, erabili katalana, eta landu bitxigileak bere lana zizelkatzen duen bezala, miatu bere erregistroak eta esaerak, atera iezaiozu distira zeure katalana izan arte... Baina artikulua edo saiakera bat idatzi nahi duzunean, pentsatu garrantzitsuagoa dela zer esaten duzun nola esaten duzun baino. Hobeto idazten ikasteko, erabili orduan zeure ingurunetik urrutien dagoen hizkuntza, frantsesa, ingelesa edo italiera, oso zehatza eta laburra izatera behartuko zaituen bat, azken batean, oso neutroa eta inpertsonala».

Eta hemen nauzue, horretan ahalegintzen (jakinda ere ez dudala lortuko).

Hala ere, ikasle ona naizenez, nire maistraren aholkuak bete eta hitzaldia pertsonalizatzeari utziko diot.

Hiru elementu dira nagusi: *minoría* edo gutxiengo kontzeptua, *minorizatu*a kontzeptua, eta *hizkuntza* kontzeptua. Hiru kontzeptu horien eta irudiztatzearen arteko harremanez zer esan asko dago.

Hizkuntza eta irudiztatzea

Nire herrialdeko ilustratzaile ospetsuenetako batzuentzat, irudiztatzea «margolaritza eta marrazketaren adar bat litzateke, muga tematiko, mekaniko eta merkatukoak gaindituz, publiko handiarentzako arte-lanak sortzen dituen» (Pacheco: 1997); baina irudiaren ikertzaileek gero eta gehiago azpimarratzen dute irudiztatzea hizkuntza bat dela. Askorentzat hizkuntza unibertsal bat da. Eta are gehiago, hasierako hizkuntza, hau da, besteen aurretikoa, besteen jatorri edo oinarri dena.

Baieztape horrek oso ondorio garrantzitsuak ditu haur-hartzailearen kasuan. XVII. mendean, Comenius eta Lockek adierazi eta azpimarratu zuten haurrentzako liburuak, eskolako abezeak edo Esoporen alegiak izan, irudiak behar zituztela, «horrek haurra gehiago dibertiarazi eta irakurtzera bultzatuko baitu». Ideia hori sakon sartu da hezkuntza-eremuan, gaur egun haur-liburua eta liburu irudiztatua ia sinonimoak izateraino. Hala ere, irudiztatzearen lehenengo eginkizuna testu-hizkuntzarako zubi egitea den ideiak ahaztu egiten du, edo ez dio behar hainbat arreta jartzen beste egitate honi, hots, irudiztatzea ere, berez, hizkuntza bat dela, bere arau sintaktikoak dituela eta irakurtzen ikastea eskatzen duela, zeren eta irudiak erakusten edo izendatzen duenaren esanahia ateratzen ere ikasi egiten baita. Tamalgarria da hezitzaile askok, normalean irakurketa eta hizkuntza bisuala gaizki ikasita dutenak, irudiak laguntzaile atsegin bezala bakarrik hartzea, beren jaun eta jabearen (testuaren) izaera latza eramangarri eta atseginago bihurtzen dutenak. Hau da, hierarkizatu egiten dituzte liburuaren bi osagai nagusiak, eta irudiztatzea mendeko eta, luzera, beharrezkoa ez den eginkizun batera baztertzen dute.

Oinarrizko zerbait argitu behar da hemen. Ez da gauza bera hizketa eta hizkuntza. Hizketa zuzeneko komunikazioaren eremuko da, eta



testua –hizketaren gauzatzea, alfabetoa deitzen dugun zeinu grafikoen bidez– komunikazio diferituaren eremuko da, irudiztatzea bezalaxe. Komunikazio diferituaren aukerak garatuz eta indartuz joan da gizateria, eta ondorioz, gaur egun, komunikazio diferituko euskarrien bidez jasotzen ditugun mezuak gehiago dira zuzenean, aurrez aurre, batetik besteari emanda jasotzen ditugunak baino. Baina hori bai, haurra gizarteko bihurtzeko ezerk ezin du ordezkatu helduaren eta haurren arteko truke ludiko eta afektiboan bereziki gertatzen den zuzeneko komunikazioa, komunikazio horren bidez ematen diegularik neska-mutilei komunikazio diferitua (testua, irudiztapena, liburua, artea, filma, pantaila, diskoak, Google, Wikipedia, iPhone, etab.) menderatu eta erabiltzeko aukera. Hau da, kulturaren unibertsoa eta ondarea. Gaur egun unibertso eta ondare horrek mundu guztiaren eskura dagoela ematen du, informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) berriei esker. Baina... horrela da benetan? Munduko haur guztiek dituzte eskura IKTak? Munduko haur guztiek dute eskura, ez bakarrik teknologikoki diferitutako komunikazioa, baita liburuaren bidez diferitua ere? Eta are okerragoa dena: egon gaitezke ziur munduko neska-mutiko guztiek, guzti-guztiek, dutela helduekiko

zuzeneko komunikazio positibo eta afektiborako aukera? Galdera-sorta horretan, IBBYren barruan UNICEFen helburuetara gehien lerratzen den sektorean kokatuko genukeen horretan, non dago haur-populazioaren benetako gehiengoa eta non benetako gutxiengoa?

Gaiaren beste ikuspegi batetik, komunikazioaren eta hizkuntzaren arteko baliokidetasunarenetik, planteatu genitzakeen gaiak beste batzuk izango lirateke. Adibidez, benetan hizkuntza unibertsal bat da irudiztatzea? Gehiago ote da seinale-irudiztapenaren kasuan (adibidez, zirkulazioko seinaleetan) errealtatearen errepresentazio irudiztatuaren kasuan (adibidez, Migel Angelen Sixtotar Kapera edo indio navajoen margolanetan) baino? Ala alderantziz? Eta hizkuntzaren eremuan hizkuntzaren eta hizketaren artean bereizten badugu, marrazki eta irudiaren artean ere bereizi behar ote dugu? Nola eta zergatik? Zein sartu behar da zeinetan? Bidexka honetan, hizketa guztien artean, ama-hizketa hasierakoa eta iniziatikoa baldin bada, ba ote orduan balizko «ama-irudiztapen» edo «lehen irudi» egokiagorik haurra gizarteko bihurtzeko? Zein? Non sustraitu edo kokatua, zein testuinguru familiar edo berehalakotan? Eta irudiaren sustraitze hau haurren testuinguru hurbilekoen eta berehalakoenean ama-hizketa bezain erabakigarria izango balitz, nola baloratu ahal izango genuke emaitzazko irudiztatzea: bere sustrai autoktono sakonagatik ala komunikazio eta irradiazio unibertsalerako bere gaitasunagatik? (Galderaren adibide bat jartze aldera, ketxuera oso protohizkuntza aberatsa da, zortzi edo hamar milioi pertsonak hitz egina, guztiak ondare ikoniko izugarriarekin, baina nazioarteko oso proiektzio txikiarekin, hutsaren hurrengoa ez esateagatik, fonetika, hizkuntzalaritza, literatura edo estetika aldetik hitz eginez).


Eta itxuraz baliotsua den idiosinkrasia autoktonoaren sustrai hori, orainaldian ala lehenaldian aztertu behar da? Hau da, Antzinako Egiptoko artearen espezifikotasuna eta balioa kontuan izanda,

egungo Egiptoko ilustratzaileek Alkairoko hurrei profilezko pertsonaiak aurkezten jarraitu behar ote lukete hobeto sustraitzeko beren kultura-jatorrietan? Galdera hau harrigarria gertatzen da, baina... zenbat viktoriar estetikaren zordun da egungo britainiar irudiztapena? Ala europar kritikak ez du atsegin Hokusai-ren japoniar estanpen arrastoak aztertzea Chihiro Iwasaki-ren irudiztapenetan edo Hayao Miyazaki-ren filmetan?

Hizkuntza guztiek bezala, irudiztapenak ere bere bilakaera du, egiptoar hurrek ere ez dute gaur egun Tutankamon gazteak bezala hitz egiten, eta herrialde hartako ilustratzaileek ere ez dituzte horretara behartu behar, zeren eta Jill Barklem britainiarra ere ez baita Shakespeare bezala komunikatzen. Benetan bitxia zera ikustea da: haur-liburuaren irudiztapenaren ezaugarri formalen bilakaera askoz nabariagoa eta lasterragoa dela era honetako liburueta testuetan suma daitekeena baino, agian irudiztatzea eta bere sorkuntza modaren eta teknikaren fenomeno estetikoetara lotuagoak daudelako literatura baino, edo agian testua oraindik kontrolatuago dagoelako ideologia pedagogikoaren aldetik irudia dagoen baino. Azken batean, irudi-hizkuntzaren bilakaera eta garapena ulragainditzen dituzten kultura-, gizarte-, prozedura-, funtzio- eta ideologia-mailako fenomeno eta ahalmenen mende egongo lirateke. Orduan, egin behar den galdera hau da: eragiteko ahalmena duen zein gutxiengok edo gehiengok erabakitzen du kulturalki unibertsala edo partikularra dena irudiztapenaren (eta oro har, irudiaren) eremuan?

Minorizazioa eta irudiztapena


Ez da gauza bera txikiagoa izatea eta minorizatu egotea. Haurrak, nahi izan gabe eta batzuetan jakin gabe, adin txikiak dira, baina soilik adinez. Beste gauza bat da hazten ez uztea edo norbaiten edo zerbaiten hazkundera eta hedapena ukatzea. Horri esaten zaio *minorizatzea* edo *minoratzea* (gutxiagotzea, txikiagotzea). Eta



printzipioz ekintza-aditz honek asmo edo borondate bat inplikitzen du, jakinean edo jakin gabe, minorizatu murriztu edo gutxiesteko.

Biltzar honetara etorritako gehienontzat, guztiak haur-liburueta adituak, irudiztatzeak ez du edo ez luke izan behar ezdeus edo garrantzi gabea, ez baituzue ekarpen txikiagotzat hartzen, baizik eta oso nabarmentzekotzat, haur-literaturaren barruan. Baina baita ere ikus dezakezen bezala, irudiztatzeak ez dirudi presentzia garrantzitsua duenik artearen eremu kanonikoetan, museistikoak edo dibulgaziozkoak izan. Haur-liburuan espezialista diren guztien begietara, irudiztatzeak minorizatu dirudi. Ea aurkitzen dugun zergatik.

Egon daitezke arrazoi historikoak; haurrentzako liburua eta literatura berri samarrak direnez literatura osoaren historian, oraindik hamarkadak faltako litzaizkioke, nolabait esanda, bere «adin-nagusitasuna» lortzeko eta, ondorioz, berdintasun edo betetasunezko tratua izateko bere ikerketa, analisi eta zabalkundean. Alderdi edo desfase akroniko hau erremediatzeak guztien gauza eta konpromisoa izan beharko luke, «guzti» horretan sarturik bai bere produkzioaren eragileak eta bai kultura-erakunde publikoak. Hala ere, gaur egun badirudi norabide horretan egin diren eta egiten diren ahaleginek ez dutela lortzen endogamia



apurtzea, hau da, minoritarioa (eta sarriegi minorizatu) den publiko batengana, haurrengana, dedikaturiko profesionalen zirkulu minoritario batekoa izatea.

Gainera, esan dugunak haur-literatura osoa hartzen badu ere, aitortu behar da irudiztapenaren azterketa, analisi eta zabalkunde estetikoari dagokionean, literatura-testuari buruzko azterketen oso atzetik gabiltzala. Pisuzko ikertzaileak falta dira, ezagupen hauek transmititzeko kanalak eta, are etsigarriagoa dena, batzuetan lexiko espezifiko ere falta da honelako ikerketa-lanetarako, horretan aritzen direnek ahal bezala ordezkatzeko dutelarik, literatura-hartzearen teoretatik ateratako hiztegia maileguan eskatuz eta pertzepzio bisualaren teoretatik ateratakoarekin nahastuz.

Baita ere kontuan izan behar da, arte-historiaren azterketa estetikoaren barruan ere, monigote edo karikatura-estetika oso arreta gutxi merezi duen zerbait dela. Eta, hala ere, haur-irudiztapena, bai komikian eta bai album irudiztatuan, oparoa da monigote edo karikaturazko estilizazio formal baten proposamen estetikoetan. Gogora dezagun Rodolphe Töpffer-ren marrazkiek eta berak karikatura eta mugimenduko irudiaz egindako

azterketak XIX. mendearen lehen erdikoak direla, eta gaur egunean ere, Gombrich-en (1959) mailako arte-kritikari batengan sortu zuten interesa gorabehera, ia ez dutela oihartzunik izan. Gaur egun ere, karikatureskoa, artearen zirkulu akademikoetan, «errazegia» edo gutxi landutako zerbait bezala hartzen da, irrigarria, gai edo baliozkoa «ume»-pentsaera dutenentzat eta, are okerragoa dena, kulturalki igarokorra eta kanon aldetik gaindi daitekeena. Hala ere, karikatureskoa edo seinaletikoa itxuraren aplikazio edo sintesi burutsu, zorrotz eta dinamikoan oinarritzen da, eta buru-argitasuna gizarte postmodernoa gorantz doan balioetako bat da, Italo Calvinok (1985) esan zuen bezala. Irakurlearen (edo behatzailearen) enpatia asmotsua sustatzeak parez pareko harreman ludiko bat ezartzea inplikatzeko du ilustratzaile heldu igorlearen eta hartzailearen (ez nahitaez haurrearen) artean. Hala ere, badirudi ludikoak ospe gutxiago duela serioak eta mamitsuak baino, alegia, dibertimendua, hain irrikatua izan arren, arinkeriatzat jotzen dela eta, beraz, kulturalki minorizatu.

Arte-kritika akademikoak haur-irudiztapenaren gainera bota ahal izango lukeen beste erantzuki handia hori gutxiesten jarraitzeko, karikaturaren beste muturrean egongo litzateke, bere manierismo formalean, alegia. Egia da, oso sarri, haur-publikoari eskaintzen edo zuzentzen zaizkion irudiak samur edo bigunak direla, bere forma eta koloreetan gehiegizko edulkoraziora iristeraino. Baina hori bezain egia da heldu gehienek ahotsaren erregistroa aldatzen dutela haur bati hitz egiterakoan, eta, ahal dutenean, musuz eta laztanez betetzen dituztela. Eta ongi egiten dute, neska-mutikoei (eta mundu guztiari, oso heldua izan arren) gustatu egiten zaizkielako musuak, laztanak eta kilimak, berezkoak eta zintzoak baldin badira. Helduen eta haurren arteko enpatia afektiboa oso-oso positiboa da. Beraz, haurrekin komunikatu nahi duen ilustratzaileak, zergatik uko egin behar dio haurrenganako samurtasuna

agertzeari? Kanon estetiko zorrotz eta latz baten izenean, zergatik uko egin behar diogu afektibitatearen eraginkortasunari?

Beraz, haur-publikoarengana bideratutako ilustrazioaren estetikak pairatzen duen minorizazio nabariaren aurrean, hona hemen egin daitezkeen galderak: komunikazioaren eta irudiaren aroan bete-betea gaudenean, beren teknika eta egikera estetikoki akatsgabeak diren irudiak bakarrik ote dira akademikoki aintzat hartzeko modukoak? Errealitatearen irudikapenean duten bikaintasun formal eta seriotasunaren arabera hierarkizatu behar ote genituzke irudiztapenaren komunikazio-balioak? Arte kanonikoaren merkatuan sartu eta kotiza daitezkeenak bakarrik balio al dute, estetikoki margolaritza edo grabatuaren eremukoak direlako edo horra hurbiltzeagatik bideratuak eta abalatuak? Karikatureskoak nahiz samurra denak, asmamenak eta afektuak eragiten duten berehalako ulerkuntza eta enpatia potentziala ez al da

agian preziagarrien eta baliotsuenetakoa haurren kultura-hartze eta komunikaziorako?

Gutxiengoak eta irudiztapenak

Azkenik, azalpen honen hirugarren atalean nahitaezkoa da gelditzea gutxiengoa zer den zehazteko, zeren eta biltzar hau gutxiengo horien indarraren inguruan biratzen baita.

Etimologikoki, gaztelaniazko *minoría* hitza latinezko *minus*-etik (...baino gutxiago) dator, gutxiagotasunezko konparatiboa. Horren antonimoa *mayoría* litzateke, latinezko *maior*-etik (...baino gehiago) datorrena, gehiagotasunezko konparatiboa. (Harrigarria da ikustea bere bilakaeran, *magister* deitu zitzaiola gehien zekienari, eta *minister* apalena zenari, nahiz eta, luzarora, ministroak eta ministerioak –horrela deituak besteen zerbitzura egon behar dutelako—maisumaitstren eta horien irakasletzaren oso gainetik dauden. Hizkuntzaren paradoxak!).





Dena den, IBBY-ren biltzar honetan aztertzen ari garen gutxiengo kontzeptua parekatuago dago hizkuntza, gizarte, kultura, hezkuntza... mailan pisu txikiagoa duten taldeekin. *A priori*, ilustrazioak distantziak laburtzen lagun dezake gizarte-gutxiengo hauen eta kultura-gehiengoaren estatusaren artean, lehen esan bezala batzuek hizkuntza unibertsal eta hasierakotzat daukate -eta. Baina hori desiderata bat baizik ez da, asmo bat, ez beti egingarria, eta asmatze positiboak bezainbeste zoritxarreko irristaldiak izan ditzake. (Eskarmentuak esaten dit tarteki hau oso delikatu dela: batzuetan gutxiengo batekoa izatea hain da harrigarria gehiengoarentzat, ezen honek, federik eta borondaterik onenaz, desberdintasuna areagotzera jotzen baitu bere usteko integrazio-iruzkinetan. Badakit hori emakumea, katalana eta idazlea izateagatik, duela urte batzuk, frankismo garaian, inork ez zuelarik nabarmendu gabe uzten ohiz kanpoko gisa).

Egia da herrialde batzuetan argitaratzaileek eskatu edo exijitu egiten dietela ilustratzaileei era guztietako gutxiengoak irudika ditzaten beren lanetan, nahiz eta batzuetan anekdotikoa bakarrik den kuota presentzialetara mugatu izan den hori bigarren mailako pertsonaiaren bat edo beste ageriaraziz, eta osagarri grafiko huts izateko rol-era mugatua. Dena da zer edo nola kontatzen duen testuak. Eta hori egin eta azter daiteke liburuak tonu errealista markatua baldin badu bakarrik.

Orduan gertatzen da bereziki egokia ilustratzaileak eskubideetan eta dotoretasunean berdintzea bere pertsonaien kategoria. Baina, egokia al da politikoki zuzena den axioma hori *Heidi* edo *Emilio eta detektibeak* bezalako lan klasikoak irudiztatu behar direnean, jatorri kulturantzuneko pertsonaiarik batere gabeak biak ere?

Egia esateko, kutsu errealistako narrazio-lanak benetako gutxiengoak dira haur-literaturaren munduan. Alegiazko lanak dira gehienak, eta itxura eta egoera guztietako pertsonaiak sortzeko aukera ematen diete ilustratzaileei.

Hitz egiten duten untxiak gutxien-gutxienak izango dira mundu errealean, baina oso ugariak haur-literaturaren orrialdeetan. Eta, gainera, abere hiltun bitxi baina oso atsegin horiek ezin hobeto moldatzen dira gainerako izaki bizidun guztiekin: elkarriketa zoragarriak daude txerri eta otsoen, haur eta herensugeen, ardi eta oi-loen, asto eta hartzen, bele eta untxien, katu eta saguen... artean, eta batzuetan ezkontza, dantza edo oturuntza eginez bukatzen dute. Alegiazko izakiek bizikidetza integratzailea erakusten dute benetan. Eta urte askoan izan dadila!

Utz ditzagun beren zeregin pribilegiatuan eta itzul gaitezen mundu errealerara, mesedez. Hitz egin dezagun irudiztapenaren eta gutxiengoaren arteko loturez. Koka gaitezen komunikazioaren eskema klasikoan, non igorlea baitago (ilustratzailea), mezua (lan irudiztatua) eta hartzailea (irakurle



edo ikuslea). Garbi dago eskema honen ordena unitate-kopuruen eskala txikiagotik handiagora doala, hau da, ilustratzaileak gutxiengo bat dira hartzaile izan daitezkeen aldean, bere lanen tiraldia oso handia izanda ere.

Gera gaitezen azken hauen behaketan. Haur-liburu irudiztatuaren hasieran, lehen atalean esan dugun bezala, uste baten irudiztapena duina eta beharrezkoa baina testuaren lagungarri hutsa zela irakurtzera hobeto bultzatzeko, gaur egun eginkizun hori berrikusi eta zabaldu egin behar da. Komikiaren, zinemaren, diseinu grafikoaren eta album-liburuaren ekarpenak kontuan hartuta, jada ezin da hitz egin irudiztatzeaz soilik apaingarri bibliografiko eta tresna didaktiko gisa, baizik eta gero eta gehiago modalitate narratologiko berritzaile gisa, berariazkoa, esparru literario eta pedagogikoa gainditzen dituen. Irudiztatzea gaur egun kontatzea da benetan. Eta lan irudiztatuarekin haurrek duten harremana irakurtzen ikasteko baino gauza gehiagotarako da. Lan irudiztatuak, narratiboa, estatikoa edo sekuentzia-mugimenduan dagoen irudiak, album, komiki edo nobela grafikoaren orrialdeez gain, zinema eta telebistako, ordenagailu eta iPod-eko pantailak ere hartzen ditu. Hau da, bete-betean eragiten du irudiaren kultura multimediaren fenomenologian.

Horrela, bada, ahalik eta publikorik zabalenarekin estetikoki komunikatzen diren profesionalen gutxiengo batekoa da ilustratzailea. Horietako

batzuek beren artea paperean zabaldu nahi dute, ipuin, olerki, komiki edo dena delakoaren argitaratzaile baten lanaz baliatuz. Animazioak tentatzen ditu beste batzuk. Beste batzuk prentsak, afixa edo kartelgintzak eta publizitateak. Sarri, ilustratzaile batzuek, adibidez Isidro Ferrer, Serge Bloch edo Raymond Briggs-ek, komunikazio grafikoan egon daitezkeen bide guztietan egiten dituzte sarraldiak. Masa-hedabide berriek aldizkari eta liburuen ekintza-eremua gainditu egin dute, hor hasi zuen bere ibilera oker deituriko haur-literaturak. Hala ere, kontuan izan behar da, zenbat eta ekintza-eremu handiagoa izan mezuak, orduan eta ospe handiagoa izango duela, eta horrek ikonologia popular eta populistaren (Disney eta bere ordezkoen tankerakoaren) eta irradiazio murriztuago eta selektiboagoko ikonologiaren artean bereiztera behartuko gintuzke. Gainera, zentzu honetan, erabakigarria da ilustratzailea komunitate kultural minorizatu batekoa izatea edo profesionalki gehiengo kultura-talde batean sartu ahal izatea.

Mundu-merkatuaren globalizazioarekin, adibidez Kamerun, Albania edo Haitiko ilustratzailearen artisau-lan txiki eta apalak, argitaratzaile txiki eta behartsu batzuegan ozta-ozta oinarrituak, galtzaile izateko aukera guztiak ditu. Latza da onartzea, baina bada, eta denok gara lekuko, kultura-kolonizazio bat, non komunitate periferikoetako ilustratzailea metropoliaren kanon estetikoetara



hurbiltzen baita, korrante estetikorik hedatuen edo hedagarrienei jarraituz, edo bestela oso jakitun izan behar du bere lan profesionalaren ekintza-eremua eta etekina mugatua izango dela.

Mugapen hori, batzuetan, norberaren arabera egoten da. Irudiztapena hizkuntza baldin bada eta ilustratzailea kontalari grafikoa, ideala da ilustratzaile hori bere hizkuntza estetikoak garbituz eta leunduz joatea, bere sortze-lana zizelkatuz, nolabait esateko bere «ahots» propioa eta nahastezina lortzeko. Orduan, bai, benetako gutxiengoan aurkituko da, bera eta bera bakarrik komunikatu ahal izango baitira horrela besteekin. Asko ahalegintzen dira, baina ez dute guztiek lortzen, zeren eta «ahots» propioa lortzearen aitorpena ez baitator ilustratzaileak berak egiten duenetik, baizik eta komunitate hartzaileak balioetsi edo balora dezakeenetik. Ahotsa kriptikoa baldin bada, lanak ez badu lortzen publikoarekin komunikazioa lortzea, bakartuta geratuko da eta, ziur asko, abandonaturik. Horregatik da hain garrantzitsua irudiztapenaren inguruko sarien, lehiaketen eta erakusketen eginkizuna, baita ere dibulgazio- eta dokumentu-proiektuena ere.

Kritika eta epaimahaia ahalegintzen dira ilustratzaileen lanetan ohikoa ez dena balioztatzen eta, oro har, bikainena bilatzen, txalotzen eta saritzen dute. Baina, zer da bikainena? Zenbateraino dago bikaintasuna moda edo tradizio kanonikoen

mende? Bikaintasuna beti positiboa al da beste guztien gainetik? Sinplea negatiboa al da beti? Plantea dezagun ikerketa gehiago eskatzen duen gai bat: itxuraz txarrak ziren zenbat irudiz hornitu ziren Albrecht Dürer, Robert Ingpen edo Roberto Innocenti ilustratzaile ospetsuak? Eta «onaren» eta «txarraren» artean bereiztera dedikaturiko kritika horri dagokionez... Nola detektatu ezohikoa edo erabat berria, kanpotarra edo minoritarioa, aurrez ezarritako jarraibideekin? Eta nola jendarteratu eta ezarri? Zergatik artearen historian baztertu, gutxietsi edo galdu dira horrenbeste lan, horien handitasuna ondorengo belaunaldiek bakarrik aitortu dutelarik? Irudiztapenaren historian zergatik dute mendebaldeko, ez esatearren anglosaxoniarrak, jatorria izen handi eta ospetsu gehienek?

Hala ere, uste dut bere status minorizatu, minoritario edo indibidualetik, irudiztapenaren hasierako hizkuntza ate asko ari dela irekitzen, bide berriak urratzen eta jarrera asko airebertitzen bere existentziak eta bilakaerak planteatzen dituzten galderen bidez, eta horiek guztiek bere etorkizuneko konfiantza izatera naramate baikortasunez eta itsu-itsuan. Eta baieztape horretan ez dago ezer pertsonalik, zeren eta ulertzen baitut konfiantza hori dela arlo batetik edo bestetik IBBY-ren 32. biltzar honetara etorri garen guztiok partekatzen duguna. Ala ez?

Maitasunez

Teresa Durán participó en una mesa redonda en el 32º congreso internacional del IBBY bajo el título

La ilustración: herramienta de representación de minorías

La escritora catalana y especialista en literatura infantil y juvenil responde lo más objetivamente posible al reto de las relaciones planteadas entre ilustración y minorías.

Su artículo está presidido por tres elementos fundamentales: el concepto de minoría, el de minorizado y el concepto de lenguaje.

Se muestra contraria a la concepción de muchos educadores que ven en la ilustración “una agradable dama de compañía que hace más llevadero y ameno el áspero carácter de su dueño y señor: el texto; y no le otorgan la categoría de lenguaje, con sus normas sintácticas... no la consideran otra manera de narrar de igual rango”.

Señala que la ilustración no tiene un espacio o una presencia relevante dentro de las esferas canónicas del arte. Afirma que a través de la ilustración se establece una lúdica relación de igual a igual entre el emisor y el receptor, y como lo lúdico tiene menor prestigio que lo serio, esto influye en ser minorizada culturalmente.

Teresa Durán finaliza su artículo con optimismo pues constata que la ilustración está abriendo muchas puertas, trazando nuevos caminos...

Teresa Durán participated in a roundtable discussion at the 32nd International IBBY Conference. The subject was:

The Illustration: tool for representing minorities

The Catalan writer and specialist in literature for children and teenagers addressed, in the most objective way possible, the challenge facing the relationships existing between illustration and minorities.

Three basic elements prevail in her paper: the concept of minority, the concept of minorized and the concept of language.

She comes out against the conception of many educators that see in the illustration “a nice lady who accompanies us and who makes the rough character of her lord and master more bearable and pleasant: the text; and it is not granted the category of language with its rules of syntax... it is not considered to be another way of narrating that has an equal level.”

She points out that the illustration has no space or significant presence within the canonical spheres of the art. She asserts that through illustration a ludic relationship is established between equals, between the transmitter and the receiver, and as the ludic aspect has less prestige than the serious one, this influences being culturally minorized.

Teresa Duran ends her article on a bright note, since she asserts that the illustration is opening many doors, plotting new routes, etc.

Translated by Sarah J. Turtle

